

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK

2013ko urriaren 31n aurkeztuko du

GARMENDIA

**MANEROS
ZABALA**

SALABERRIA

PROZESUA ETA METODOA

GUGGENHEIM BILBAO

Garmendia, Maneros Zabala, Salaberria. Prozesua eta metodoa

- Datak: 2013ko urriaren 31 – 2014ko otsailaren 16a
- Komisarioak: Lucía Agirre eta Álvaro Rodríguez Fominaya
- Aretoak: hirugarren solairua.

Guggenheim Bilbao Museoa [*Garmendia, Maneros Zabala, Salaberria. Prozesua eta metodoa*](#) erakusketa inauguratu du. Erakusketa honek hirurogeiko hamarkada amaieran eta hirurogeita hamarreko hamarkadan jaiotako hiru euskal sortzaileen ibilbidea aztertzen du. Hiru artisten jardun artistikoaren elementu komuna Historiaren gaineko interesa da, ikerketarako eta berraztertzerako gai gisa hartuta. Erakusketak, alde batetik, hiru sortzaileen ibilbide profesionala aztertzen du haien obra esanguratsuenen bidez, era horretara, haien sorkuntzen arteko berrelikadura ahalbidetuz. Bestetik, artistek Museorako berriaz sortutako hiru lan ikusgai izango dira, eta, behin erakusketa amaituta, Guggenheim Bilbao Bildumaren esku geratuko dira.

Historiaren kontraesanak eta anbiguotasunak agerian uzteko helburuarekin, historia bera aztertzea da Iñaki Garmendiak, Erlea Maneros Zabalak eta Xabier Salaberriak euren jardun artistikoan darabilten ohiko estrategia. Historiaren dekonstrukzioa gai gisa erabiltzeaz haratago, hiru artistek “sentiberatasun komuna” adierazten dute modu sotil eta hautemanezinean, eta, era horretara, berregite-, bereganatze- eta berrinterpretatze-prozesuak baliatzen dituzte arteaz duten ideia hurbiltzeko.

Gauzen egoeraz duten begirada fenomenologikoa ere nabarmendu daiteke artista horiengan, bai eta egunerokoaren esperientziak duten ikuspuntua ere. Ikerketa-ildoak, komunak eta esanguratsuak, ez dira jardun estetiko berdin batean oinarritzen, sare plural bat osatzen duten bektoreetan baizik. Sare honen funtsak lurraldearekin du zerikusia batzuetan, eta, besteetan, berriz, XX. mendeko ideia eta mugimendu artistikoen historiarekin.

Museoaren hirugarren solairuko erakusketan, 2001. urtetik gaur egunera arte sortutako argazkiak, bideoak, grabatuak, marrazkiak, akuarelak eta instalazioak daude ikusgai, artista garaikide hauek erabilitako baliabide eta teknika anitzak agerian utziz. Erakusketako obrak zenbait museo, galeria eta bildumagile pribatuk utzitakoak dira, eta badira artisten bilduma partikularreko aleak ere.

Hiru euskal artisten ibilbidea aztertzen du erakusketak, eta egoera berriak berraztertu, testuingurutik atera eta sortzeko prozesuari heltzeko hiru modu oso desberdin islatzen dituzte bertan jasotzen diren lanek, historia zein erreferentzia desberdinak abiapuntutzat hartuta. Horrenbestez, irakurketa pertsonalak eta oso desberdinak eragiten dituzte ikuslearengan.

Iñaki Garmendia

Iñaki Garmendia (Ordizia, 1972) euskal arte garaikideko artista esanguratsua da eta ia bi hamarkada daramatza nazio mailako zein nazioarteko galeria eta museoetan erakusketak egiten. Erakusgai dagoen bere artelan multzoa paradoxek eta horretarako joerak markatutako testuinguruan egin zituen. Horrenbestez, emaitzak, haren estetikak, askotariko esanahiak iradokitzen ditu.

Bertako barne-historiaren, artearen historiaren zein gazteen musikaren eta azpikulturen prozesu, ekintza eta elementu oso zehatzak jasotzen ditu Garmendiak, eta horien alderdi esanguratsuenak bereizi eta esparru orokor batean kokatzen ditu. Ikuslearentzat zaila da *a priori* irudi horiek —bideoak, performanceak, argazkiak edo marrazkiak izan— identifikatzea, eta horiek deszifratzeko gakoak berariaz bere bizipenetan bilatzen ditu. Bizipen horien interpretazioak, beraz, kutsu pertsonal nabarmena du, bai eta kutsu unibertsala ere. Garmendiaren lanaren oinarrian daude hainbat bazterketa eta kentzea daude: batzuetan adierazpidea bera mugatzen da, bestetan edukia, metaforen bidez.

Honako obra esanguratsuek, besteak beste, adierazten dute Iñaki Garmendiaren corpus artistikoa erakusketa honetan: *Txitxarro* (2000) seriea, *Kolpez kolpe* (2003), *Red Light/ Straight Edge* (2006), *Titulurik gabea Orbea (Orduña)* (2007), *Ez R. S. (maitasunezko 99 globo gorri)* [*No R. S. (99 Red Love Balloons)*, 2008] eta *Titulurik gabea (sei erpin)* [*Sin título (seis picos)*, 2011], eta, azkenik, *Ikaraundi – EQDALOS (burua paretan kontra belaunikatuta)* (2013) erakusketa honetarako bereziki sortutakoa.

Sorkuntza horiek artistaren bi lan-ildoak agerian uzten dituzte, sarritan elkarren artean harremanetan daudenak: alde batetik, objektu eta ikono kulturalak testuingurutik ateratzea eta zatikatzea eta, bestetik, zenbait ikus-entzunezko grabazio eta muntaia prozesu esperimentalen azterketa eta berrinterpretazioa.

Txitxarro diskoteka gipuzkoar ezagun baten izena da, ETA talde terroristak 2000. urtean lehergailu bat jarrita suntsitu zuena. Iñaki Garmendiak, hamarkada batean zehar, suntsiketa hura baliatu zuen zenbait obra sortzeko. Lan horiek euskarri eta teknika desberdinak erabilia egin zituen Garmendiak, eta, horien bidez, laurogeiko hamarkada aldera N-634 errepidearen inguruan euskal gazteriarentzat sortutako gozamen eta ihesbiderako tokietako baten berri ematen digu. Era berean, talde terroristak industrialariei etengabe egiten zien estortsioa erakusten digu, burdin hesiaren irudia biziraupenaren sinbolo gisa jarritz. Bertako ikusleentzat eduki politiko eta sozial handiko obrak dira; bertakoak ez diren ikusleek, aldiz, suntsiketaren irudiak besterik ez dituzte ikusiko. Euskal etxeen inguruan ere egin ditu zenbait lan, hots, berrogeita hamarreko hamarkadaz geroztik Frantzia hegoaldeko kostaldean barrena baserrien estiloa imitatuz sortutako euskal etxeen (*Villas Basques*) tipologiari buruzko katalogo baten antzekoa. Halaber, autoktonoaren eta aloktonoaren arteko deskonexio hau agerian geratzen da *Kolpez kolpe* (2003) edo *CCC-MT* (Neurri guztiak hartu dira)* [*CCC-MT* (All the Measures Are Taken)*, 2011] ikus-entzunezko pieza esanguratsuetan.

Erakusketan, halaber, gorputzaren inguruan artistak garatutako lanaren adibideak ikus ditzakegu; horien artean, nabarmentzekoa da *Biloa (Bozo, 1998/2013)* obra. Ikus-entzunezko pieza dramatikoa da eta, sexu-irudi esplizituen bidez, zerbait gertatzear dagoenaren sentsazio etengabea adierazten dio ikusleari. 1998ko ikus-entzunezko materiala erabilia 2013an egindako obra honek, Barbara Rubin *Christmas on Earth* (1963) film proto—*queer* eta proto-feminista gogora ekartzen du. Obrak agerian uzten du Garmendiak gizakiaren gorputzaren inguruan duen kezka, dela bere faltagatik, dela bere presentziagatik, eta, aldi berean, Garmendiaren hasierako lanetara eramaten gaitu, lan honen oinarri den bideoa 1998an grabatu baitzen, Ángel Badosek eta Txomin Badiolak Arteleku arte zentro gipuzkoarrean, artistaren “sortze-unean”, emandako sorkuntza tailer batean parte hartzen ari zela.

Iñaki Garmendiaren lana era desberdinetan uler daiteke, eta obren adierazlea eta adierazia desberdin izan daitezke edo bat etor daitezke, gure historia propioaren eta artxibategi pertsonalaren arabera. Aipatutako irakurketa desberdinak egiteko aukera horren adibidea da *Red Light/Straight Edge* (2006) obra. Bi pertsona laurogeiko hamarkadako azpikulturako talde baten bi kantu a capella kantatzen erakusten duen proiektio bikoitza da. Musika-tresnarik ez izateak eta sortutako giroak kantuen letretan eta interpretatzaileen aurpegi zein gorputzen espresioetan arreta jartzera behartzen dute ikuslea.

Erakusketa honetarako berariaz sortutako obra *Ikaraundi – EQDALOS (burua paretan kontra belaunikatuta)* (2013) izenekoa da, Garmendiaren aurreko lan guztiaren sintesia adierazten duena. Jorge Oteizak José Sarriegui margolariaren buruaz egindako bustoa —egun desagertuta dago— oinarri hartuta, zehazki lanaren argazki gutxiak, obra honek konnotazio artistiko zein kultural nabarmenak ditu. Proiektu hau gauzatzeko, Sarrieguiren bustoaren inguruan dauden argazki urriak aztertu ditu Garmendiak, teknika eta prozesu desberdinak erabiliz —ingeniaritza industrialeko programa informatikoetatik zuzeneko modelatzera— iragana berregiteko asmoarekin. Lan horren emaitza euskarri desberdinetan jaso du, esaterako, bideo bat. Bideo horretan burua objektu gisa erabiltzen du; aitzaki formal da, baita bere buruari erreferentzia bat, eta horrela, objektuaren (buruaren) ikono gisa duen indarra azpimarratzen du. Hori guztia dela eta, *Bomber* eta *Titulurik gabea Orbea (Orduña)* (2007) obrak gogora ekarriz. Hori ere ikusgai daude erakusketa honetan, baina, kasu honetan, artistak berak, bere ahotsa erabiliz, kontakizun etena egiten du, denboran jauziak eginez. Horrela, buru-hausgarri pertsonal bat osatzen du, bere buruari begira, bai eta ikusleari begira ere.

Erlea Maneros Zabala

Erlea Maneros Zabalaren (Bilbo, 1977) obrak jasotzen dituen erakusketa, halaber, hirugarren solairuko areto klasikoetan dago ikusgai. Artista Los Angelesen bizi da eta nazioartean etorkizun handiko ibilbideari ekin dio bertan, mundu osoko galeria eta arte zentroetan erakusketak egin dituelarik. Bilboko artistaren ikerketa artistikoaren elementu nagusiak irudikapenaren izaera, irudiaren tratamendua edo masa hedabideek historiaz, kontakizun garaikidea egiteko elementu gisa, egiten duten interpretazioa dira.

Titulurik gabea (1894ko irailaren 8a. La Ilustración Española y Americana) [*Untitled (September 8, 1894. La Ilustración Española y Americana)*], 2007/13 obran, tokiko testuinguruan zama historiko handia duen irudikapen bat bere egiten du Maneros Zabalak, irauli, eraldatu eta serializatzen duen bitartean: 80 metroko garaiera izan behar zuen burdinazko dorre baten diseinuan oinarritzen da lan hau, Gernikako zuhaitz modernoa bailitzan, modernitatearen eta tradizioaren lotura gisa balio zezakeena eta Bilbo hiriaren erdigunean kokatzeko pentsatu zena. Izaera historikoa, politikoa eta soziala duen burutu gabeko proiektua dakarren obra honi kontrajarrita, artistak Museoarentzat berariaz egindako lana dugu: *Euskal grafia; tipografia eta apaingintza: 1961–1967 (Grafía Vasca; tipografía y ornamentación: 1961–1967)*, 2013). Kobre gainean grabatutako 39 xaflek osatzen dute obra hau, eta *Sine Nomine* aldizkariaren orriak erakusten dituzte. Aldizkaria klandestinoki argitaratzen, ziklostilean inprimatzen eta banatzen zuten euskal apaizek, *Egiz* (1950-1952) elizaren aldizkari klandestinoak debekatu ondoren. *Sine Nomine*-ren historia zein haren esanahi soziala Gipuzkoako Lazkao herriko beneditarren artxibategitik berreskuratu ditu artistak. *Euskal grafia* obrak artistaren aurretiazko serieak berrinterpretatzen ditu, izan ere, aurretik irudian eta haren konplexutasun kontzeptualean —testuingurutik ateratzearen ondorioz baldintzatuta ageri zena— arreta jartzen baldin bazuen, tipografia aztertzeari ekiten dio orain, irudiaren alderdi formalen gaineko interesa testuaren alderdi formaletara eramanez.

Antzeko dialektika gertatzen da *Titulurik gabea (Los Angeles Times-en mikrofilmen artxibategia, 2007ko maiatza)* [*Untitled (Los Angeles Times Archive on Microfilm, May 2007)*], 2008 obran; kasu honetan, arkeologiaren kontzeptua azpimarratzen du Maneros Zabalak, inprimatzeko teknologia zaharkitu bat erabiliz. *Los Angeles Times* egunkaritik ateratako zuri-beltzeko argazki handiak, mikrofilmen batean artxibatuta, ikusgai daude horma erraldoi batean matrize baten moduan, eta irudiekin batera

zihoan testua ezabatu egin da. Euskarriak berak badu bere eginkizuna lan honetan; ez teknikoa edo mekanikoa soilik, baita kontzeptuala ere. Abiapuntu gisa hartutako irudiak berrikustera eta testuinguru berri batean interpretatzera bultzatzen du ikuslea.

Bestetik, *Titulurik gabea, osteguna, 2001eko azaroaren 1a, Los Angeles Times eta New York Times (Untitled, Thursday, November 1st, 2001, Los Angeles Times and New York Times)*, 2005–13 izeneko lanean, zama mediatiko handiko irudiak erabili ditu artistak. Egunkari hauetatik hartutakoak dira eta partzialki atera ditu testuingurutik jatorriz argitaratu zireneko prentsa orrialdetik bereiztean, izenburuaren bidez harreman hori gorde arren. Afganistanen gertatutako bonbardaketen argazkiek, edertasun poetiko izugarria duten akuarela bilakatutakoek, hedabideek iritzi publikoa sortzeko orduan duten eginkizunari buruz galdegiten diote ikusleari eta, bereziki, ekialdeaz dugun irudiaz sortzen diren iritziei dagokienean.

Idea bera errepikatzen du *Titulurik gabea (Ekialdeari buruzko ikerketak) [Untitled (Orientalist Studies), 2010]* obran. Material ahulez egindako zenbait beira-arasetan, collage multzo bat ikus daiteke eta, bertan, berriz ere, mendebaldeko kulturak ekialdeaz duen irudi estereotipatuari erreferentziak egiten dizkio. Erakusketak, halaber, *Abstrakzio ariketak (I., II., III. eta IV. sailak) [Exercises on Abstraction (Series I, II, III, and IV)]*, 2007–13, seriea jasotzen du. Artistak papera marmolatzeko teknika erreproduzitu du egunkariko paper fin eta garbi-garbian.

Xabier Salaberria

Xabier Salaberriak (Donostia, 1969), Eusko Jaurlaritzako Arte Plastikoetako Sarien irabazlea izan zenak, hamarkada batetik gorako ibilbidea darama, eta estatuko zein Europako gainerako herrialdeetako museo eta galerietan erakusketa garrantzitsuak egin ditu bakarka zein taldeka.

Bere belaunaldiaren barruan praxi berezia garatzen du Salaberriak, izan ere, artea, diseinua eta arkitektura uztartzen diren eremuan gauzatzen du bere lana. Bere ibilbidean zehar, modernitatearen historiak emaitza emankorrak eman dizkio artistari ikerketa intelektualaren arloan, eta horixe bera islatzen du artistak eskultura edo arkitektura oinarri duten instalazioetan.

Artista gipuzkoarrak kolaborazio estrategiak erabiltzen ditu sarritan, eta ikuslearekiko eta beste agente artistiko batzuekiko interakzioa sorrarazten du horrela. Praxi hori baliatuz, XXI. mendeko eskulturaren kontzeptuaz, modernitatearen kontzeptuaz eta erlazio-arteaz hausnartzen du.

Modernitateko arkitektoak dira sarritan Salaberriaren inspirazio-iturri proiektuak garatzeko orduan; Ludwig Mies van der Rohe edo Gerrit Rietveld, esaterako. Aipuen unibertso honetan, testualak izan edo ez izan, artista desberdinak ageri dira. Jorge Oteiza, esaterako, *Hondamendia (Debaclé, 2009)* obran aipatzen da. Egitura modular hau artelan bilakatzen da artistaren ekintza kontzeptualaren bidez. Bestalde, Ettore Sottsass arkitekto eta diseinatzaile italiarra *Inkontziente/kontziente* (2011–13) serieko eskulturaren euskarri formala da.

Erakusketa honetarako berariak sortutako *A.T.M.O.T.W.* (2013) instalazioaren bidez, museoak adierazteko leku gisa betetzen duen paperaz egiten du gogoeta, eta artistaren aurreko lanen —*Martello* (2012) edo *Inkontziente/kontziente*, esaterako— erreferentziak jasotzen ditu. *A.T.M.O.T.W.* letrak *All The Material Of The World*-en inzialak dira, hots, Gure Artearen XX. edizioaren harira artistak 2010ean egindako argitalpen homonimoaren azalari dagozkio. Izenburua, halaber, asmoen adierazpen

bat da, proiektzio entziklopedikoa agerian uzten duen heinean, zeinetan museoaren arkitektura azpitemu bat den. Oraingoan, Gerrit Rietveld arkitektoa da obraren abiapuntuetako bat. Aurretik egindako lanen, *Martello* edo *Inkontziente/kontziente* esaterako, aipamen ugari idatzita edo jarrita ageri diren talaia baten itxura du obrak. Instalazioaren eskala neurri-unitate gisa jarduten duen adreiluzko modulu baten bidez egin du, eta haren bidez eraikitako bolumena erakusten du. Metaketa diferituko semantika hau proiektu berri hau sortzeko oinarri eta metodo bilakatzen da, artearen, arkitekturaren eta diseinuaren arteko elkargunea agerian geratuz.

Xabier Salaberriak, 1997ko Artelekuko tailerlean parte hartu zuten artista eta kritikarien taldeko kideak, modernitatearen, industria-iraultzaren eta masako produkzioaren serializazioaren historiaren dekonstruzioa egiten du, erakusketako objektu-tresnak edo *display*-ak interpretatuz. Historiaren aro batean oinarritutako begirada honetan, tokiko testuinguruak ezartzen du zein oinarritan finkatu duen bere obra, besteak beste, objektuaren eta espazioaren inguruan Oteizaren kontzeptuak garatuz.

Katalogoa

Erakusketaren katalogoak Iñaki Garmendiaren, Erlea Maneros Zabalaren eta Xabier Salaberriaren obrak arakatzeko ditu, artisten obra esanguratsuenen ibilbide grafikoa eginez. Era berean, katalogoko entseguek artisten proposamenen esangura eta irismenean sakontzen dute. Katalogoak Tanja Baudoinek, Peio Agirrek eta Miren Jaiok sinatutako entseguak nahiz erakusketaren komisarioek idatzitakoa jasotzen du.

Gune didaktikoa

Erakusketaren osagarri gisa, areto klasikoaren pasillo paraleloan gune didaktiko bat ezarri da. Bertan, artista bakoitzaren lan-prozesuak eta erakusketaren funtsezko gaiak ezagutzera ematen dira, hala nola, Historia, Prozesua edo Jabetzea, testuen, ikus-entzunezkoen eta artistek beraiek egindako hautaketa bibliografikoaren bidez. Euskarri horiek artisten interesguneak zein inspirazio-iturriak sakonkiago ezagutzeko aukera emango digute.

Artistekin bisitaldiak

Iñaki Garmendiak, Erlea Maneros Zabalak eta Xabier Salaberriak erakusketan ikusgai jarri dituzten lanen eta euren lan metodoen gakoak azalduko dizkiote publikoari hiru topaketetan:

- Urriaren 31, osteguna, Erlea Maneros Zabala
- Azaroaren 7a, osteguna, Iñaki Garmendia
- Azaroaren 21a, osteguna, Xabier Salaberria

Topalekua: Informazio-mahaia. 18:30etik 19:30era. Doako jarduera da, eta ezinbestekoa da aurretik Museoaren web orrialdean izena ematea. Gehienez 20 lagunek eta gutxienez 5 lagunek parte har dezakete (Museorako sarrera ez dago barne).

BIOGRAFIAK

Iñaki Garmendia

- 1972.** Urriaren 9an jaio zen Ordizian (Gipuzkoa).
- 1991.** Arte Ederretako ikasketak hasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU).
- 1995.** Erasmus beka bat eskuratu zuen Bristolen, University of the West of England unibertsitateko Faculty of Art, Media & Design fakultatean, ikasteko. *École d'art* erakusketa inauguratu zuen Bordelen eta *Ezkatoz Paristik* erakusketa, berriz, Bilboko AEKn.
- 1996.** Arte Ederretan, eskultura espezialitatean, lizentziatu zen UPV/EHU.
- 1997.** *Iñaki Garmendia* bakarkako erakusketa inauguratu zuen Ordiziako Barrena Kultur Etxean.
- 1998.** Donostiako Artelekun ospatutako "Ángel Bados-Txomin Badiola tailerlean" parte hartu zuen. Multimedia eta irudi digitalari buruzko ikastaroa egin zuen Londresko Kingsway Collegean.
- 1999.** Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka bat eskuratu zuen. Donostiako Arte Ekinbideak (DAE) taldeak antolatuta, *Me voy a ir, me voy, estoy ido* bakarkako erakusketa inauguratu zuen Donostiako Egia Kultur Etxean.
- 2001.** Eusko Jaurlaritzako Ikus-entzunezko Produktzioarako beka bat eskuratu zuen. DAEk antolatutako *Superkongresua, encuentro entre creadores artísticos* egitasmoan parte hartu zuen Donostiako Egia Kultur Etxean, eta baita Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean antolatutako *Rock Radical Vasco, Certamen de artistas noveles* izenekoan ere.
- 2002.** Asier Mendizabalekin batera egindako *Goierrri konpeti* bideoa estreinatu zuen Donostiako Kutxa aretoan. Hainbat erakusketetan parte hartu zuen: Taipeiko Bienalean, Ljubljana Skuc Galerijan egindako *Organisational Forms* taldeko erakusketan eta *Intervenciones TV: Festival de vídeo* erakusketan Gasteizen.
- 2003.** *Kolpez kolpe* erakusketa aurkeztu zuen Bartzelonako T4 galerian. Bere obra ikusgai egon zen Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofíako *Cine y casi cine* erakusketan eta Bartzelonako Centre de Cultura Contemporània (CCCB) egindako *Després de la noticia* erakusketan.
- 2004.** Eusko Jaurlaritzaren Gure Artea 2004 lehiaketaren lehen saria eskuratu zuen Ibon Aranberri eta Azucena Vieitesekin batera. New Yorkeko International Studio & Curatorial Programean (ISCP) parte hartu zuen, Berdintasuneko Ministerioko Gazteria Institutuaren (INJUVE) beka bati esker. Egoitza-beka bat lortu zuen Berlineko Künstlerhaus Bethaniengo International Studio Programmean. Bere obra *Glocal* taldeko erakusketan aurkeztu zen Iruñeko Moisés Pérez de Albéniz galerian. Vrsac eta Belgraden, Serbia eta Montenegron, ospatutako *The VI Yugoslav Biennial of Young Artists* bienalean parte hartu zuen eta baita Donostian ospatu zen *Manifesta 5* Arte Garaikidearen Europako Bienalean ere.
- 2005.** Bere obra ikusgai egon zen *Gure Artea: Iñaki Garmendia, Ibon Aranberri, Azucena Vieites* erakusketan, Gasteizko Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoko Iparra aretoan.
- 2006.** *Only Kids Love Other Kids* liburua argitaratu zuen. *Red Light/Straight Edge + Izarra* aurkeztu zuen Frankfurtoko Frankfurter Kunstverein museoa.
- 2007.** Santanderreko Fundación Marcelino Botínen Arte Plastikoen beka eskuratu zuen. Zenbait erakusketa kolektibotan parte hartu zuen: *1, 2, 3... Vanguardias. El arte como arte contextual* Bilboko Rekalde aretoan; *Imágenes del otro lado* Kanaria Handiko Las Palmaseko Centro Atlántico de Arte Modernoko San Antonio Abad aretoan; eta *Intensities. Inconformisme, incorrecció i rebel·lió entre art i*

escena musical/erakusketa, El Prat de Llobregat, Mataró, Sabadell, Ripollet, Terrassa, Caldes de Montbui, Caldes d'Estrac, Vilafranca del Penedés eta Sant Boi de Llobregaten.

2008. *No R.S.* erakusketa inauguratu zuen Iruñeko Moisés Pérez de Albéniz galerian. *Ez R.S. (Maitasunezko 99 globo gorri)* [*No R.S. (99 Red Love Balloons)*] lana aurkeztu zuen Municheko Underdox 3. Document und experiment jaialdian. ARTIS Den Bosch fundazioaren *Post-production* programan parte hartu zuen Den Boschen (Holanda).

2009. *Kolpez kolpe* bideoa aurkeztu zuen Madrilgo ARCO Arte Azokaren barruan antolatutako *EXPANDED BOX* programan. Donostiako San Telmo Museoak bere obra eskuratu zuen bere bilduman gordetzeko. *Itinerarios 2007/08* taldeko erakusketan erakutsi zuen bere obra Santanderreko Fundación Marcelino Botíneko erakusketa aretoan.

2010. Hangar-Contemporary Image Collective (CIC) artistentzako egoitza-beka eskuratu zuen Kairon. *Kolpez kolpe* lana aurkeztu zuen Lleidako Centre d'Art La Panerako Centre de Documentació zentroan. Bere obra ikusgai egon zen zenbait erakusketetan: *La sombra del habla. Colección MACBA*, Seuleko National Museum of Contemporary Art of Korea museoan; eta *Art Contemporain et Culture Rock*, Baionako (Frantzia) Carrée/Musée Bonnat museoan.

2011. Bakarkako erakusketa bat aurkeztu zuen Bartzelonako La Virreina Centre de la Imatge zentroan eta *1979. Un monument a instants radicals* taldeko erakusketan parte hartu zuen zentro horretan bertan. *Titulurik gabea (sei erpin)* [*Sin título (seis picos)*] izeneko eskultura aurkeztu zuen Madrilgo ARCO Arte Azokan, Moisés Pérez de Albéniz galeriaren standean. Artiumek obra erosi eta lehen aldiz ikusgai jarri zuen 2012an, *Montajes de Atracciones (Tirar del hilo. Colección Artium)* erakusketaren testuinguruaren barruan.

2012. Bere obra ikusgai egon zen *Materiality* taldeko erakusketan, Wyspa Art Foundationean, Gdansk (Polonia) eta *Gravity & Disgrace II* erakusketan, Centro Galego de Arte Contemporáneo (CGAC), Santiagon.

2013. *Police/car* erakusketa inauguratu zuen Moisés Pérez de Albéniz galerian, Madrilen. Museu d'Art Contemporani de Barcelonak (MACBA) *S/T Orbea (Orduña)* bideoa erosi eta *La Colección* erakusketan aurkeztu zuen. Bere obra Donostiako San Telmo Museoan *Europa konstelazioa* taldeko erakusketaren barruan erakutsi zen. Guggenheim Bilbao Museoan erakusketaikusgai dago, Erlea Maneros Zabala eta Xabier Salaberriarekin batera.

Erlea Maneros Zabala

1977. Martxoaren 17an jaio zen Bilbon.

2001. Arte Ederretako ikasketak amaitu zituen Eskoziako Glasgow School of Art-eko Pintura Departamentuan.

2003. Arte Ederretako masterra amaitu zuen Los Angelesko California Institute of the Arts zentroan. Art2102 irabazi-asmorik gabeko erakunde ibiltariaren sortzaileetako bat da, Kate Fowle eta Renaud Prochekin batera. *Death & Co* taldeko erakusketan parte hartu zuen, Mexiko DF-ko Garash galerian.

2005. Los Angelesko China Art Objects eta Blum & Poe galerietan egindako taldeko erakusketan parte hartu zuen eta baita, Walead Beshtyen komisarioa zela, New Yorkeko Pelham Art Centerrean egindako beste erakusketa kolektibo batean ere. Bere obra *The Backroom* ikerketa-proiekturako hautatu zuten, eta San Francisco New Langton Arts eta San Francisco Camerawork galerietan batera aurkeztu ziren.

2007. Bi bakarkako erakusketa inauguratu zituen: *Erlea Maneros Zabala: Exhumation*, San Frantziskoko Queen's Nails Annex galerian eta *Erlea Maneros Zabala*, Bilboko Rekalde Aretoko Kabinete Abstraktuan. Berak parte hartzen zuen *The Backroom* ikerketa-proiektua Parisko Kadist Art Foundation galerian aurkeztu zen.

2008. Egoitza-beka bat lortu zuen Platform Garanti Contemporary Art Centerrean, Istanbulen. Hainbat lekutan aurkeztu ziren bere bakarkako erakusketak: Hanburgeko Seamen's Art Clubean, Los Angelesko Fellows of Contemporary Art zentro artistikoan eta Los Angelesko Redling Fine Art galerian.

2009. *After the Final Simplification of Ruins* taldeko erakusketan parte hartu zuen Gasteizko Montehermoso Kulturunean. Artistaren bakarkako erakusketa bat ikusgai egon zen Bilboko Carreras Múgica galerian.

2010. Manifesta 8: Región de Murcia en diálogo con el Norte de África, Murcia y Cartagena bienalean ikusgai egon zen bere obra. Zenbait taldeko erakusketetan parte hartu zuen: *Antes que todo*, Centro de Arte Dos de Mayo zentroan, Madrilen, *Picture Industry (Goodbye to All That)*, Regen Projects galerian, Los Angelesen, eta *Immaterial*, Ballroom Marfa zentro artistikoan, Marfan, Texasen.

2011. Bakarkako erakusketak inauguratu zituen Los Angelesko REDCAT galerian, Mexiko DF-ko Museo Experimental El Eco museoan eta Bergeneko Stiftelsen 3,14 fundazio norvegiarrean.

2012. *Pilgrimages for a New Economy* erakusketa aurkeztu zuen Chicagoko Unibertsitateko Reva and David Logan Center for Creative and Performing Arts zentroan. Halaber, *Peregrinaciones para una nueva economía* izeneko bi erakusketa aldi berean ikusgai izan ziren Madrilgo Maisterravalbuena galerian eta Bilboko Carreras Múgica galerian. Hainbat taldeko erakusketetan ikusgai izan ziren bere lanak, besteak beste, Donostiako Cristina Enea Fundazioan eta Gdanskeko (Polonia) Wyspa Institute of Art zentroan.

2013. *Erlea Maneros Zabala: Past Work* erakusketa inauguratu zuen Los Angelesko Redling Fine Art galerian. Guggenheim Bilbao Museoan erakusketa ikusgai dago, Xabier Salaberria eta Iñaki Garmendiarekin batera.

Xabier Salaberria

1969. Urtarrilaren 31n jaio zen Donostian.

1998. Donostiako Artelekun ospatutako “Ángel Bados-Txomin Badiola tailerrean” eta “Peio Irazuren tailerrean” parte hartu zuen.

2000. Ikus-entzunezko Arteen inguruko beka lortu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

2001. Donostiako Arte Ekinbideak-ek (DAE) antolatutako *Superkongresua, encuentro entre creadores artísticos* egitasmoan parte hartu zuen Donostiako Egia Kultur Etxean. *Titulurik gabea (plataforma)* [Sin título (plataforma)] eskultura egin zuen Donostiako Artelekuko lorategian jartzeko.

2002. *Gure Artea 2002* taldeko erakusketan parte hartu zuen, Bilboko Rekalde aretoan. Donostiako Arteleku berriz inauguratzearen harira antolatutako *Garai Txarrak* proiektu artistikoan parte hartu zuen.

2004. DAEren eskariz, *Film Ideala Betirako (Film Ideal Siempre)* diseinatu zuen Gorka Eizagirrerekin batera, Donostiako Manifesta 5 Arte Garaikidearen Europako Bienalaren testuinguruan.

2005. Egoitza-beka eskuratu zuen Rooseum Center for Contemporary Art zentroan, Malmö (Suedia). Centre de Cultura Contemporània de Barcelonako (CCCB) *Sessió Contínua* erakusketa kolektiborako dokumentazio-guneko proiektio aretoen arkitektura zein altzariak diseinatu eta egin zituen. *Share your time drink and food in Kunstverein* proiektua egin zuen Gorka Eizagirrerekin batera Frankfurtoko Kunstvereineko kafetegian. Luca Freirekin batera sortutako *Titulurik gabea* pieza-altzari-artxiboa aurkeztu zuen *La insurrección invisible de un millón de mentes* erakusketan, Bilboko Rekalde Aretoan.

2006. Bakarkako erakusketa aurkeztu zuen Madrilgo Liquidación Total elkarte kulturallean. Bere obra ikusgai egon zen Berlingo Atle Gerhardsen Galleryko *Attitude* taldeko erakusketan.

2007. Egoitza-beka eskuratu zuen ACC Internationale Atelierprogrammean, Weimarren (Alemania). *Xabier Salaberria* erakusketa inauguratu zuen Bilboko Carreras Múgica galerian. *Part II of An Unbuilt Project* lana aurkeztu zuen *The Big Easy* taldeko erakusketan, Halle 14 arte zentroan, Leipzigen.

2008. Eusko Jaurlaritzako Gure Artea 2008 lehiaketaren lehen saria eskuratu zuen, Asier Mendizabal eta Iratxe Jaio/Klaas van Goekumekin batera. Obra sariduna ikusgai egon zen Bilboko Rekalde Aretoan aurkeztutako *Gure Artea 2008* taldeko erakusketan. Egoitza-beka eskuratu zuen Helsinki International Artistin Residence Programmean (HIAP), Helsinkin. *Fronte hotza (Cold Front)* instalazioa aurkeztu zuen Frankfurter Kunstverein galerian eta Kopenhageko *U-Turn. Quadrennial for Contemporary Art* jaialdian.

2009. Santanderreko Fundación Marcelino Botín Arte Plastikoen beka eskuratu zuen. *An unexpected thought - function in contemporary art* taldeko erakusketan erakutsi zuen bere obra, Göteborgeko (Suedia) Göteborgs Konsthallean. *El mal de escritura* erakusketarako erakusketa-gunea diseinatu zuen Bartzelonako Centro de Estudios y Documentación MACBAn.

2010. *Memories and Encounters* egoitza-proiektuan parte hartu zuen Milango Viafarini erakunde artistikoan. *Antes que todo* taldeko erakusketan parte hartu zuen, Centro de Arte Dos de Mayo (CA2M), Madrilan, eta baita Londresko Raven Roweko *A History of Irritated Materia* erakusketan ere.

2011. Gasteizko Montehermoso Kulturunearen 2011ko Arte eta Ikerketa beka lortu zuen.

Inkontziente/kontziente erakusketa inauguratu zuen Bilboko Carreras Múgica galerian. Bere obra ikusgai egon zen *Eine Grammatik der dritten Person* taldeko erakusketan, Corner Colleegean, Zurichen; *Szenarien über Europa. Szenario 1* erakusketan, GFZK Galerie für Zeitgenössischean, Leipzigen; *Moderno y presente. Cambio de siglo en la colección MACBA* erakusketan, Museu d'Art

Contemporani de Barcelonan (MACBA); eta *Itinerarios 2009-2010. XVII Becas Fundación Botín de Arte* erakusketan, Fundación Marcelino Botíneko erakusketa aretoan, Santanderren.

2013. Bere obra erakutsi zuen *Constelación Europa* taldeko erakusketan, Donostiako San Telmo Museoan eta *The Society Without Qualities* taldeko erakusketan, Stockholmeko Tensta Konsthallean. Guggenheim Bilbao Museoan erakusketa ikusgai dago, Erlea Maneros Zabala eta Iñaki Garmendiarekin batera.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel. +34 944359008
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es
<http://prensa.guggenheim-bilbao.es/>

Prentsa irudiak:
Garmendia, Maneros Zabala, Salaberria. Prozesua eta metodoa
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. **Iñaki Garmendia** (Ordizia, 1972)

Kolpez kolpe, 2003

Kanal bakarreko koloretako bideo-instalazioa, soinuduna, 24 min

San Telmo Museoa



2. **Iñaki Garmendia** (Ordizia, 1972)

Titulurik gabea Orbea (Orduña), 2007

Kanal bakarreko bideoa, Betacam SPtik digitalizatua, 42 min

Artistaren eskaintza

Argazkia: Marc Roig Blesa



3. **Iñaki Garmendia** (Ordizia, 1972)

Titulurik gabea (sei erpin) [Sin título (seis picos)], 2011

DMzko moduluez egindako eraikuntza, bozgorailuduna

147 x 36 cm

Artium, Vitoria-Gasteiz

Argazkia @Gert Voor in t'Holt




4. **Iñaki Garmendia** (Ordizia, 1972)

Titulurik gabea (hesia) [Sin título (verja)], 2011

Planoak

3 lan: 97 x 67 cm bakoitza

Hauen eskaintza: artista eta Moisés Pérez de Albéniz galeria



5. **Iñaki Garmendia** (Ordizia, 1972)
Ikaraundi-EQDALOS (burua paretan kontra belaunikatuta),
2013

Papera, metala, DMzko ohola, zura eta proiektzioa
Kokapen zehatzeko neurriak
Guggenheim Bilbao Museoa




6. **Erlea Maneros Zabala** (Bilbo, 1977)
Titulurik gabea, osteguna, 2001eko azaroaren 1a, Los Angeles Times (20. estudioa) [Untitled, Thursday, November 1st, 2001, Los Angeles Times (study 20)], 2005

Urmargoa bitela paper gainean
50,8 x 66 cm
Redling Fine Arts, Los Angeles



7. **Erlea Maneros Zabala** (Bilbo, 1977)
Abstrazio ariketak (II. saila) [Exercises on Abstraction (Series II)], 2009–10

Txinako tinta offset paper gainean
91,4 x 61 cm
Honen eskaintza: Carreras Múgica, Bilbo



8. **Erlea Maneros Zabala** (Bilbo, 1977)
Los Angeles, 2009ko maiatzaren 14a (Los Angeles, May 14th, 2009), 2009/13

80 diapositibako proiektzioa
Redling Fine Arts, Los Angeles



9. **Erlea Maneros Zabala** (Bilbo, 1977)
Titulurik gabea (Ekialdeari buruzko ikerketak) [Untitled (Orientalist Studies)], 2010; ikuspegia *Manifesta 8*
erakusketan, Murtzian eta Kartagenan, 2010–11
Museo kartoia, luma-kartoia, polimetilmetakrilatoa, arkatzez egindako marrazki baten koloretako kopia, egunkarietako irudien collagea eta aluminioa
10 lan: 81,3 x 33 x 114,3 cm cada una
Redling Fine Arts, Los Angeles



10. **Erlea Maneros Zabala** (Bilbo, 1977)
Euskal grafia; tipografía eta apaingintza: 1961–1967 (Grafía Vasca; tipografía y ornamentación: 1961–1967), 2013
Kobre gaineko grabatua
39 xafila: 42 x 30 cm bakoitza
Guggenheim Bilbao Museoa



11. **Xabier Salaberria** (Donostia, 1969)
Egin gabeko proiektu baten II. zatia (Part II of an Unbuilt Project), 2007
Pinuzko kontratxapatua eta tirafondoak
190 x 500 x 40 cm
Honen eskaintza: Carreras Múgica, Bilbo



12. **Xabier Salaberria** (Donostia, 1969)
Fronte hotza (Cold Front), 2008/13
Inprimaketa digitala, argazkiak, zura, metala eta pintura
Neurri aldakorak
Honen eskaintza: Carreras Múgica, Bilbo



13. **Xabier Salaberria** (Donostia, 1969)
Hondamendia (Debaque), 2009
Margotutako burdina eta marmola
Neurri aldakorak
Colección MACBA, Fundación MACBA, Fundación Repsol



14. **Xabier Salaberria** (Donostia, 1969)
Titulurik gabea, 2011 (*Inkontziente/Kontziente* sailetik, 2011–13)
Zementua, burdina eta pintura
104 x 85 x 85 cm
Honen eskaintza: Carreras Múgica, Bilbo



15. **Xabier Salaberria** (Donostia, 1969)
A.T.M.O.T.W., 2013
Metala, tolestutako metalezko xafila, beira, pintura eta hormigoia
Neurri aldakorak
Guggenheim Bilbao Museoa

